

ESKAERA BETETZEKO ARGIBIDEAK

Noiz aurkez dezakezu aukera-eskaera hau?

- A.** Osasun Sistema Publikoak **titular** gisa osasun-laguntzarako eskubidea aitortu badizu eta Gizarte Segurantzako Sistemaren titular baten **onuradun** gisa osasun-laguntza jasotzeko aukera izan nahi baduzu. Gainera, egoera hauetako batean egon behar duzu:
1. Langabezia-prestazioa edo -sorospena agortu izatea.
 2. Hitzarmen berezi bat sinatu izatea.
 3. Eszedentzia-egoeran egotea.
 4. Espainian bizi izateagatik titularra izatea (jarduneko langilea, Gizarte Segurantzako pentsioduna edo Gizarte Segurantzako prestazioen hartzailea ez izatea).
 5. Osasun-laguntzarako eskubidea luzatzeko egoeran egotea.
- B.** Osasun Sistema Publikoak titular gisa osasun-laguntzarako eskubidea aitortu badizu, **SOVI pentsio bat jasotzeagatik**, eta osasun-laguntza jasotzeko aukera izan nahi baduzu, **Funtzionarioen Araubide Bereziko titular baten onuradun** gisa (MUFACE, MUGEJU edo ISFAS).
- C.** Osasun Sistema Publikoak titular gisa osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortu badizu, **SOVI pentsio bat jasotzeagatik**, eta **osasun-laguntza jasotzeko aukera izan nahi baduzu titular gisa** alarguntasun-pentsiodun, zurtasun-pentsiodun edo Funtzionarioen Araubide Bereziko (MUFACE, MUGEJU edo ISFAS) senideen aldeko pentsiodun izateagatik.

Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorreko (MUFACE) edo Indar Armatuaren Gizarte Institutuko (ISFAS) edo Mutualitate Judizial Orokorreko (MUGEJU) titular baten onuradun gisa osasun-laguntza jaso nahi izanez gero, eskaera dagokion mutualitatean aurkeztu beharko du, GSINen eskabide hori aurkeztu beharrik gabe.

ARESTIAN DESKRIBATUTAKO EGOEREK BAKARRIK EMATEN DUTE AUKERA EGITEKO ESKUBIDEA; BERAZ, EGOERA HORIETAKO BATEAN EZ BAZAUDE, EZ DA IZAPIDERIK EGINGO.

Nola bete behar duzu eskabide hau?

Kasu guztietan, eskatzailearen datuak bete beharko dituzu. Datu horiek II. atalean jasoko dira. ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK Beti eskatzaileak erabiliko du aukera, adingabeen edo desgaitasuna duten adinekoen kasuan izan ezik. Nolanahi ere, eskaera 2. orrialdean sinatu beharko du eskaera aurkezten duen pertsonak, bai bere izenean, bai ordezkatzeko duen hirugarrenaren izenean (ordezkaria, ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatutako ahalduna edo desgaitasuna duten pertsonen laguntzako neurriak ematen dituen pertsona).

Aukera adingabe edo ezindu nagusi batentzat eskatuz gero, III. ATALA bete beharko du (AUKERA EGITEN DUEN PERTSONAREN DATUAK).

A atalean deskribatutako kasuetan, dagokion egoera markatu beharko duzu I. atalean (AUKERA EGITEN DUEN EGOERAKO EGUNGO EGOERA), eta IV. atala bete. GIZARTE SEGURANTZAKO SISTEMAREN ONURADUN IZAN NAHI DUEN TITULARRAREN DATUAK.

B atalean deskribatutako kasuetan, dagokion egoera markatu beharko duzu I. ATALEAN (AUKERA EGITEN DUEN EGOERAKO EGUNGO EGOERA). Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak bere egungo eskubidearen baja izapidetuko du, eta onuradun gisa alta emateko eskatu beharko dio dagokion mutualitateari.

C atalean deskribatutako kasuetan, dagokion egoera markatu beharko duzu I. ATALEAN (AUKERA EGITEN DUEN EGOERAKO EGUNGO EGOERA). Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak izapidetuko du bere egungo eskubidearen baja, eta dagokion mutualitateari eskatu beharko dio titular gisa alta emateko.

Zure aukera izapidetzeko garrantzitsua iruditzen zaizun eta eskaera honetan jasota ikusten ez duzun zerbait gehitu nahi baduzu, jaso ezazu ahalik eta laburren eta zehatzen VI. atalean. ALEGAZIOAK.



OSASUN LAGUNTZAREN AUKERA/BAJA

Izapide hori Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoaren bidez (<https://sede.seg-social.gob.es>) eska dezakezu, ziurtagiri digitalarekin edota CI@ve iraunkorarekin. Identifikazio elektronikorako sistemarik ez baduzu, izapidea <https://run.gob.es/tramites> helbidean egin ahal izango duzu, edo sinatutako ale bat aurkeztu ahal izango duzu posta arrunta erabiliz. Presentzialki ere egin ahal izango duzu izapidea, Gizarte Segurantzaren Arreta- eta Informazio-zentro batera joanda, 901 10 65 70 / 91 541 25 30 telefono-zenbakietan edo <https://run.gob.es/trdcita> helbidean aurretiko hitzordua eskatu ondoren.

I. AUKERA EGITERAKO UNEAN ZEIN DA ZURE EGOERA

- Titularra langabezia prestazioa edo subsidioa agortzeagatik.
- Titularra hitzarmen berezi bat izenpetzeagatik.
- Titularra eszedentzia egoeran.
- Titularra Espainian egoiliarra izanik.
- Titular luzapenean.
- SOVI pensio.

II. ESKATZAILEAREN DATUAK

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	
NAN - NIE - Pasaporte	Jaiotza-data	Telefono mugikorra	Posta elektronikoa

III. AUKERA EGITEN DUEN PERTSONAREN DATUAK (soilik adingabeen eta desgaitasuna duten adindunen kasuan)

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	
NAN - NIE - Pasaporte	Jaiotza-data	Telefono mugikorra	Posta elektronikoa

IV. GIZARTE SEGURANTZAREN ONURADUNA IZATEKO TITULARRAREN DATUAK

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	
NAN - NIE - Pasaporte	Jaiotza-data	Telefono mugikorra	Posta elektronikoa

V. ALEGAZIOAK

--

AITORTZEN DUT. Eskari honetako datuak egiazkoak direla.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak baimena eskatzen dizu telefono mugikorra, posta elektronikoa eta eskari honetan emandako kontaktu datuak erabiltzeko, Gizarte Segurantzaren arloko jakinarazpenak helarazi ahal izateko.

- BAI baimena ematen dut**
- EZ dut baimena ematen**

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

ARDURADUNA	Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala (GSIN)
HELBURUA	GSINren eskumena den Gizarte Segurantzako Sistemaren prestazioak kudeatzea
LEGEZTATZEA	Botere publikoak erabiltzea
HARTZAILEAK	Legez ezarritako edo baimenduz utzitako lagapenak eta transferentziak bakarrik egingo dira
ESKUBIDEAK	Datuak ikustea, zuzentzea eta kentzea; baita beste eskubide batzuk ere, informazio osagarriaren azaltzen den moduan
JATORRIA	Beste administrazio eta erakunde batzuen datuak biltzen ditugu, legez ezarritako baldintzen arabera
INFORMAZIO OSAGARRIA	Informazio osagarri eta zehatza kontsulta dezakezu inprimaki honekin batera erantsitako informazio-orrian, "DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA" atalean

Eskaera/komunikazio hau baliabide informatikoen bidez izapidetuko da. Inprimaki honetan agertzen diren datu pertsonalak ekainaren 29ko ESS/1452/2012 Aginduaren bidez (uztailaren 3ko BOE) sortutako BADAS fitxategian sartuko dira, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiaren zaintzapean egongo dira. Edozein unetan balia ditzakezu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak, GSINen Zuzendaritza Probintzian edo GSINen Arreta eta Informazio Zentro batean (Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikulua). hilaren 14ko BOEa).

....., 20 (e)ko aren a

Eskatzailearen sinadura

Titularen sinadura
(A ataleko eskaerretarako soilik)

Eskaera hau Internet bidez aurkeztuko baduzu, ez duzu inprimaki hau sinatu behar

ASISTENTZIA SANITARIOA ONARTZEKO EDO ERREFUSATZEKO IZAPIDERAKO BEHARREZKO DOKUMENTUAK

BLOKEA. KASU GUZTIETAN

- Eskatzailearen, bere onuradunen eta, bere kasuan, eskatzailea ordezkatzan duen pertsonaren akreditazioa, dokumentazioaren bitartez:
 - **Espainiarrak:** Nortasun Agiri Nazionala (NAN) 14 urtetik gorako guztientzat.
 - **Atzerritarak:** Atzerritarren Identifikazio Txartela (AIT) edo bere kasuan, zure herrialdean indarrean dagoen pasaporte edo nortasun agiria.
 - Kasu haietan zeinetan eskaera aurkeztu duen pertsonak desgaitasuna duten pertsonentzat babes neurriak ematen dituen, hori egiaztatzen duen dokumentazioa. Izatezko zaintzailearen kasuan, errolda ziurtagiria edo bizikidetzazko ziurtatzen duen dokumentazioa; kuradore/defendatzaile judizialaren kasuan, ebazpen judiziala.
 - Ordezkaritza ziurtatzen duen dokumentazioa. Ahalduz tarako erregistro elektronikoa inskribatutako ahaldunek ez dute ekarri behar akreditazio dokumentaziorik

2. BLOKEA. A ATALEAN DESKRIBATUTAKO KASU GUZTIETARAKO

- Titularrarekin izaten den ahaidetasunaren akreditazioa:
 - **Ezkontidea:** familia liburua edo ezkontza-inskripzioaren ziurtagiria.
 - **Izatezko bikotea:** inskripzio ziurtagiria, existitzen diren erregistro publikoetako batekoa edo, hori izan ezean, izatezko bikote baten existentzia ziurtatzeko dagokion dokumentu publikoa.
 - **Seme/alaba, iloba eta neba/arreba:** familia liburua edo jaiotza ziurtagiria.
 - Hiru hilabetetik beherako seme-alabarentzat EZ da beharrezkoa izango dokumentazio hau aurkeztea.
 - % 65eko edo gehiagoko desgaitasun maila onartua duen 26 urtetik gorako seme-alaba, iloba eta neba/arrebarentzat, derrigorrezkoa izango da gainera, desgaitasun maila ziurtatzeko ziurtagiria edo txartela aurkeztea.
 - **Tutoretzapekoa edo harrerakoa:** titularrak, ezkontideak edo izatezko bikotekideak legeztutoretzapean dela edo harrera-egoera egiaztatzeke agintari eskudunak emandako agiria.

OSASUN LAGUNTZAREN AUKERA

GIZARTE SEGURANTZAKO INSTITUTU NAZIONALAK JAKINARAZTEN DIZU:

Abuztuaren 3ko 1192/2012 Errege Dekretuaren 6.4 artikuluari jarraiki (abuztuaren 4ko EAO), abian jarritako prozedura ebatzi eta jakinarazteko epe maximoa hogeita hamar eguneko da, eskaera erregistratu den datatik aurrera edo, bere kasuan, eskatutako dokumentuak ekarri diren datatik aurrera.

Epe hori iragaitean ebazpena jakitera eman gabe, ulertu ahal izango duzu zure eskaera errefusatu egin dela administrazioaren isiltasunagatik, eta kasu horretan aurretiazko erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu urriaren 10eko 36/2011 Legearen 71. artikuluan xedatuari jarraiki, zeinek arautzen duen jurisdikzio soziala (urriaren 11ko EAO).

Eskaera honekin eransten ez badira bere tramitaziorako beharrezko dokumentuak, aurkeztu egin beharko dituzu hamar eguneko epean, bere errekerimendua egin den datarekiko hurrengo egunetik hasita. Izapide hori egin dezakezu Gizarte Segurantzako Egoitza Elektronikoa (<http://sede.seg-social.gob.es>), ohiko postaz edo Gizarte Segurantzako Arreta eta Informazio Zentro batean (CAISS) aurretiazko zita eskatuz 901 10 65 70 / 91 541 25 30 telefonoetan edo www.seg-social.es webgunean.

Adierazitako epea bete ezean, ondorioak honakoak izango dira:

- Multzoan eskatutako dokumentuak: ulertuko da zure eskaerari uko egin diozula, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66 eta 68 artikuluetan xedatuari jarraiki (2015-10- EAO).
- Multzoan eskatutako dokumentuak: kontsideratuko da eskubidea izateko eskakizunak ez dituzula behar bezainbat egiaz tatu Maiatzaren 28ko 16/2003 Legea, Osasun Sistema Nazionalaren koesio eta kalitateari buruzkoa, Osasun Sistema Nazionalerako sarbide unibertsalari buruzko uztailaren 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretuan aldatua aurreikusiarri jarraiki.

GOGOAN IZAN:

Aldaketaren bat gertatzen bada eskaera honen datuetan, zure familiaren egoeran (egoera zibilaren aldaketa), zure helbidean edo egoitza herrialdean, jakinarazi egin behar duzula Zuzendaritza Probintzian edo Institutu honetako Arreta eta Informazio Zentro (CAISS) hurbilenean.

Zure onuradunek 14 urte baino gutxiago badituzte NAN jakinarazi ahal izango duzu edozein unetan. 14 urte betetzean datu hori derrigorrezkoa da eta jakitera eman beharko da Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalerako asistentzia sanitarioaren datu-basean sartzeko, horretarako aurkeztuz “Nortasun agiriaren jakinarazpena” formularioa, ondorengo paragrafoan adierazten biren bideak direla medio.

Eskaera honekin batera dokumentazioa aurkeztu behar baduzu, formulario honetako instrukzioen arabera, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ditzakezu ondorengo moduetan: Gizarte Segurantzako Egoitza Elektronikoa, ziurtagiri digitala edo CI@ve iraunkorra erabiliz (<http://sede.seg-social.gob.es>), ohiko postaz, edo aurrez aurre Gizarte Segurantzako Arreta eta Informazio Zentro batean, aurretiazko zita eskatuz 901 10 65 70 / 91 541 25 30 telefonoetan edo www.seg-social.es webgunean.

Hemendik aurrera Gizarte Segurantzaren jakinarazpenak soilik baliabide elektronikoen bidez jaso nahi badituzu, eman ezazu jakitera posta kanalarri uko egiteko zerbitzuan: <http://run.gob.es/sckwao>.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	<p><i>Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?</i></p> <p>Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala Padre Damián, 4 PK 28036 Madril, ESPAINIA https://sede.seg-social.gob.es</p>
DATUEN BABESAREN ORDEZKARIA	<p><i>Nola jar gaitzke harremanetan Datuen Babesaren Ordezkariekin?</i></p> <p>Gizarte Segurantzako Zerbitzu Juridikoaren Zuzendaritza Infante Mercedes, 31 - 3ª Solairua PK 28020 Madril, ESPAINIA https://sede.seg-social.gob.es</p>
TRATAMENDUAREN HELBURUA	<p><i>Zertarako erabiltzen ditugu zure datuak?</i></p> <p>Zure datuak eskaera hau ebazteko, eta hala badagokio, aitortutako prestazioa kudeatzeko helburu nagusiarekin tratatuko dira.</p> <p>Zure harremanetarako datuak tratatzearen helburua jakinarazpenak egitea eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioa bidaltzea izango da.</p> <p>Emandako datu pertsonalak zure prestazioa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, edo bere onuradunenak; baita beste helburu batzuetarako ere: artxibatzea, estatistika publikorako.</p>
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA	<p><i>Zer da zure datuen tratamendurako legitimazioa?</i></p> <p>Lege-arau batek baimendutako botere publikoen erabilera oinarrituko da datuen tratamendua (66, 71, 72 77 artikulua eta elkarkideak 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategina onartzen duena, aurrerantzean, TRLGSS; Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari dagokion maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 3 bis artikulua; Sendagaien eta osasun produktuen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen testuategina onartzen duen uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 103. artikulua).</p> <p>Jakinarazpenei eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioen bidalketari dagokionez, tratamendua baimenaren bidez legeztatuko da. Baimenik ez baduzu ematen, ezin izango duzu jaso mota honetako bidalketak, hala ere, zure eskaeren egoerari buruzko informazioa eman ahalko dizugu kanal horien bidez. Horrez gain, jakinarazten dizugu ez duzula zure helbide elektronikorik eta telefono mugikorren zenbakirik eman behar, eta ez badiguzu ematen, zure eskaera izapidetzen jarraitu ahalko duzula.</p>
LAGAPENEN EDO TRANSFERENTZIEN HARTZAILEAK	<p><i>Nori jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</i></p> <p>Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak bere eginkizunetan lortutako datu pertsonalak erreserbatuak dira, eta legez agindutako helburuetarako bakarrik erabiliko dira. Ezin zaie hirugarrenei laga edo jakinarazi, horren helburua GSLOTBren 77. artikuluan berariaz ezarritako kasuren bat bada, edo beste edozein lege-arautan adierazitako kasuren bat bada.</p> <p>Nazioarteko araudian oinarritutako eskaera bat bada, zure datuak zure eskaera izapidetzeko eskumena duten atzerriko erakundeei laga ahalko zaizkie.</p>
INTERESDUNEN ESKUBIDEAK	<p><i>Zein dira zure eskubideak zure datu pertsonalak ematen dizkiguzunean?</i></p> <p>Emandako datu pertsonalei dagokienez, edozein unetan eta datuen babesari buruzko araudiak ezarritako baldintzetan erabil dezakezu datu horiek ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea, edo tratatzeko baimena ken dezakezu hala eskatu den kasuetan. Hori guztia, idazki bat aurkeztuz Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Zentro batean (CAISS), edo postaz, edo Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoaren bidez, Datuen Babeseko Ordezkarieren aurrean. Datu horiek taula honen bigarren atalean daude.</p> <p>Jakinarazten dizugu zure eskaerari modu egokian ez diogula erantzun uste baduzu, erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.</p>
JATORRIA	<p><i>Nola lortzen ditugu zure datu pertsonalak?</i></p> <p>Zure eskaeran emandako datuez gain, beste administrazio eta erakunde batzuetatik beste datu pertsonal batzuk biltzen ditugu, arautegia betez, administrazio-jarduera arintzeko eta errazteko. Datuetarako sarbide horiek lege-maila duten arauak babesten dituzte.</p>